

## II. ETA III. GRADUKO MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 65+ mendekotasuna > Eguneko zentro baterako sarbidea**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

### Norentzat

**II. eta III. graduko mendekotasuna** duten 65 urtetik gorako pertsonak. Mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 50 puntutik 100 puntura.

### Kostua

**Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua**, egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabileraren arabera

### Baldintzak

**65 urte** edo gehiago. .

**Egiaztatutako mendekotasuna** (II. edo III. gradua). **Erroldatzea.**

Intentsitate ertain edo handiko laguntza behar izatea.

### Zertan datza?

Mendekotasuna duten adinekoei eguneko arreta eskaintzen die, baldin eta haien premiei ezin bazaie beren ohiko ingurunean erantzun ([2.2.1 fitxa](#)). Mendekotasuna duen pertsonaren autonomia-mailari eustea eta haren ohiko zaintzaileei laguntzea da helburua. Banakako zerbitzua da, pertsonaren behar eta lehentasunetara egokitua. Behar denean, eguneko zentroetan errehabilitazioa, hezkuntza-jarduerak, arreta psikosoziala, akonpainamendu soziala eta garraio egokitua eskaintzen dira. Sukaldaritzako eta higiene pertsonaleko zerbitzuak ere dituzte, baita

osasan-arreta ere. Pertsonak zerbitzua aldi baterako edo modu iraunkorrean erabil dezake. Zerbitzuaren erabilera aldi baterakoa edo iraunkorra izan daiteke.

## Norentzat?

**II. eta III. graduko mendekotasuna** duten 65 urtetik gorako pertsonak (mendekotasuna baloratzeko baremoan 50 puntutik 100 puntura izanik), intentsitate ertain edo handiko laguntza behar dutenak eguneroko jarduerak egiteko.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**65 urte edo gehiago izatea.**

**II. edo III. graduko mendekotasuna edukitzea**, (49 puntu baino gehiago mendekotasunaren balorazioan).

Eskaera egiten den Lurralde Historikoko udalerriren batean **errolatuta egotea**.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

## Informazio gehiago:

- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Araban](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Bizkaian](#)
- [Mendekotasuna duten adinekoentzako eguneko zentroa Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)